BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2607

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Nazio Batuen sistemako erakundeek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2016. urterako laguntzak emateko deialdiaren barruan emandakoa. Ebazpen honen bidez, NBE-2016BA/0002 lankide boluntarioari beka emateko Fundación Unicef Comité español. Delegación en la CAE erakundeari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzen da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2016ko irailaren 21eko Ebazpenaren babespean, Fundación Unicef Comité español. Delegación en la CAE erakundeari 18.540 euroko diru-laguntza eman zitzaion, NBE-2016BA/0002 lankide boluntarioari beka emateko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2017ko apirilaren 5ean bidalitako komunikazioan, partez bekari uko egiteko eskaera bidali zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Eskaera aztertu ondoren, Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak erakunde onuradunak uko-egiteko eskaeraren aldeko txostena egin zuen.

Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuak (erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak ematekoak diren laguntzak), 9. artikuluan, ezartzen du lankide boluntarioak bekari uko egiteak kobratutako eskubide ekonomikoen itzulketa proportzionala ekarriko duela eta, hala behar izanez gero, ordaindu gabekoak ez direla ordainduko.

Uko egindako zenbatekoa kalkulatzeko, garatu gabeko beka aldia hartuko da kontuan.

Proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2016. urterako laguntzak emateko deialdiaren barruan, NBE-2016BA/0002 lankide boluntarioari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Fundación Unicef Comité español. Delegación en la CAE Erakundeak lehenengo ordainketari dagokion kopurua justifikatuta egonda, bigarren ordainketari (7.416 euro) uko egiten dio.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 26a.

(2017ko martxoaren 7an Gobernu Kontseiluak onarturiko ordezkapenaren bitartez)

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.